

# ZERGA JUSTUAK

## KALITATEZKO ZERBITZU

### PUBLIKOETARAKO

- Hego Euskal Herriko Administrazioen politika fiskalak enpresariei egiten die mesede. bai Nafarroan bai eta EAEn: langileok 17.000 euro inguru deklaratzan ditugu batez beste, baina enpresariak eta profesionalak, ordea, 11.000 euro besterik ez dituzte deklaratzan.
- Enpresarien iruzur fiskala ahalbideratzen du: enpresariak milioika euro inguruko iruzurra egiten dute urtean.
- Zuzeneko zergen pisua PFEZk –errentaren gaineko zergak- jasotzen du, eta honek langileoi eragiten digu batez ere (%70).
- Kontsumoaren gaineko zergak handitzen ditu, eta honek baliabiderik gutxi dauzkaten pertsonari eragiten die bereziki. 2005 urterako aurreikusitako zergen erdia baino gehiago zeharkakoak izango dira.
- Gehien irabazten dutenek gero eta gutxiago ordaintzen dute, gero eta injustuagoa den PFEZren bidez.
- Ez digu uzten Euskal Herrian geure politika fiskala erabakitzen.

Enpresariei mesede egiten dien politika injustu honen erruz, Hego Euskal Herrian zergetan batzen den dirua Europako baino %8,2 gutxiago da eta Espainiar estatuan baino %4,3 gutxiago. Honen ondorioz, zerbitzu publikoetara bideratzen den dirua ere askoz gutxiago da: bertan gastu soziala Europar Batasunean baino %7,9 gutxiago da.

**LAB**

## Baldin eta...

- egungo politika fiskala errotik aldatzen bada eta enpresarien iruzur fiskala kontrolatzen bada
- PFEZren -Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren- progresibitatea berreskuratzen bada
- enpresarien irabazien gaineko zergak handitzen badira, euren ere angileok kotizatzen dugun eskala berean egin dezaten
- burujabetza fiskala eta Gizarte Segurantzaren propioa lortzen baditugu

## soberan izango genuke dirua...

- batez besteko soldataren %60 izango litzatekeen **soldata soziala** ezartzeko
- **enplegu eta lan banaketa** plangintzarako, 35 orduko lanastea ezarri, langabezia tasa erdira murriztu eta jarduera tasa Europakoarekin parekatuko lukeena
- gizarte segurantzaren publiko sistema propioa ezartzeko, **pentsio duin eta nahikoak** bermatzeko
- **hezkuntza eta sanitate gastuak** Europako gastuekin parekatzeko
- **etxebizitza inbertsioa hirukoizteko** (alokairu publikoa, errehabilitazioa, etxebizitza hutsak berreskuratzea, babes ofiziala...)
- **euskalduntze** plan eraginkorrak
- **emakumezko eta gizonezkoen arteko parekidetasuna** sustatzeko benetako plangintzak
- **zerbitzu soziokomunitario publikoen sare integrala**
- **ikerketa eta garapenerako inbertsioa** bikoizteko

Euskal Herrian  
lan eta bizi  
**berton**  
erabaki!